El legislador, a través de la disposición adicional primera de la Ley 55/1999, de 29 de diciembre, de Medidas fiscales, administrativas y del orden social, autoriza al Gobierno para elaborar, en el plazo de nueve meses desde su entrada en vigor, un texto refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, en el que se integren, debidamente regularizadas, aclaradas y sistematizadas, las distintas disposiciones legales que enumera.

En su virtud, a propuesta del Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 4 de agosto de 2000, dispongo:

Artículo único

Se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, que se inserta a continuación.

DISPOSICIONES FINALES

Única. Entrada en vigor

El presente Real Decreto legislativo y el texto refundido que aprueba entrarán en vigor el día 1 de enero de 2001.

TEXTO REFUNDIDO DE LA LEY SOBRE INFRACCIONES Y SANCIONES EN EL ORDEN SOCIAL

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 1. Infracciones en el orden social

1. Constituyen infracciones administrativas en el orden social las acciones u omisiones de los distintos sujetos responsables tipificadas y sancionadas en la presente Ley y en las leyes del orden social.

Konstituzio Auzitegiak Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko 8/1988 Legea, apirilaren 7koa, birmoldatzeko zeregina estatuko legegileari zegokiola ezarri zuen azaroaren 28ko 195/1996 epaiaren bidez, konstituzioko eskumen-ordena errespetatzeko eta argitzeko xedez eta segurtasun juridikoaren mesedetan, ezinbestekoak baitira biak zehapen-arloan.

Legegileak, Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Arlokoiei buruzko abenduaren 29ko 55/1999 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren bidez, gobernuari baimena eman zion Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategin bat egiteko, bederatzi hilabeteko epean, lege hori indarrean sartzen zenetik aurrera kontaturik, hartan sar zitezten lehenengo xedapen gehigarri horretan zerrendatutako lege-xedapenak, behar bezala arautu, argitu eta sistematizatuak.

Beraz, Lan eta Gizarte Arazoetarako ministroak proposaturik, Estatu Kontseiluarekin ados eta Ministro Kontseiluak 2000ko abuztuaren 4an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau xedatzen dut:

Artikulu bakarra

Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen da, jarraian jasotzen den moduan.

AZKEN XEDAPENAK

Bakarra. Indarrean sartzea

Legegintzako Errege Dekretu hau eta haren bidez onartzen den testu bategina 2001eko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean.

GIZARTE ARLOKO ARAU HAUSTE ETA ZEHAPENEI BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Gizarte-arloko arau-hausteak

1. Subjektu erantzuleen egiteak nahiz ez-egiteak gizarte-arloko arau-hauste administratiboak izango dira, lege honetan eta gizarte-arloko legetan tipifikatuta eta zigortuta baldin badaude.

2. Las infracciones no podrán ser objeto de sanción sin previa instrucción del oportuno expediente, de conformidad con el procedimiento administrativo especial en esta materia, a propuesta de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, sin perjuicio de las responsabilidades de otro orden que puedan concurrir.

3. Las infracciones se califican como leves, graves y muy graves en atención a la naturaleza del deber infringido y la entidad del derecho afectado, de conformidad con lo establecido en la presente Ley.

Artículo 2. Sujetos responsables de la infracción

Son sujetos responsables de la infracción las personas físicas o jurídicas y las comunidades de bienes que incurran en las acciones u omisiones tipificadas como infracción en la presente Ley y, en particular, las siguientes:

1. El empresario en la relación laboral.

2. Los empresarios, trabajadores por cuenta propia o ajena o asimilados, perceptores y solicitantes de las prestaciones de Seguridad Social, las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales y demás entidades colaboradoras en la gestión, en el ámbito de la relación jurídica de Seguridad Social, así como las entidades o empresas responsables de la gestión de prestaciones en cuanto a sus obligaciones en relación con el Registro de Prestaciones Sociales Públicas y demás sujetos obligados a facilitar información de trascendencia recaudatoria en materia de Seguridad Social.

3. Los empresarios, los trabajadores, los solicitantes de subvenciones públicas y, en general, las personas físicas o jurídicas, respecto de la normativa de colocación, fomento del empleo y de formación profesional ocupacional o continua.

4. Los transportistas, agentes consignatarios, representantes, trabajadores y, en general, las personas físicas o jurídicas que intervengan en movimientos migratorios.

5. Los empresarios y trabajadores por cuenta propia respecto de la normativa sobre trabajo de extranjeros.

6. Las cooperativas con respecto a sus socios trabajadores y socios de trabajo, conforme a la Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas.

7. Las agencias de colocación, las empresas de trabajo temporal y las empresas usuarias respecto de las obligaciones que se establecen en su legislación

2. Arau-haustek zigortzeko, dagokion espedientea instruitu beharko da aurretik, alor honetako administrazio-prozedurarekin ados, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak proposaturik, hargatik eragotzi gabe beste arloetan gerta daitezkeen erantzukizunak.

3. Arau-hausteei arin, larri eta oso larri kalifikazioak emango zaizkie, urratu den eginbeharraren izaera eta ukitu den eskubidearen garrantzia kontuan izanik, lege honetan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua. Arau-haustearen subjektu erantzuleak

Pertsona fisikoak edo juridikoak eta ondasun-erkidegoak arau-haustearen subjektu erantzuleak izango dira lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako egiteak nahiz ez-egiteak egiten badituzte. Honako hauek izango dira, bereziki:

1. Enpresaburua lan-harremanean.

2. Enpresaburuak, beren edo besteren kontura diharduten langileak zein berdinetsitakoak, Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzen dituztenak edo eskatu dituztenak, lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuak eta kudeaketan laguntzen duten gainerako entitateak, Gizarte Segurantzari buruzko harreman juridikoaren eremuan, eta baita prestazioen kudeaketaren ardura duten entitate edo enpresak, Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroarekiko dituzten betebeharrak dagokienez, eta Gizarte Segurantzaren gaien diru-bilketari dagokionez garrantzia duen informazioa ematera behartuta dauden gainerako subjektuak ere.

3. Enpresaburuak, langileak, diru-laguntza publikoen eskatzaileak eta, oro har, pertsona fisiko nahiz juridikoak, enplegua emateko eta sustatzeko araudiari zein lanerako edo etengabeko lanbide-prestakuntzari buruzko araudiari dagokionez.

4. Garraiolariak, agente kontsignatarioak, ordezkariek, langileak eta, oro har, migrazio-mugimenduetan esku hartzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

5. Enpresaburuak eta beren konturako langileak, atzerritarren lanari buruzko araudiari dagokionez.

6. Kooperatibak, bazkide-langileei eta lan-bazkideei dagokienez, Kooperatiben 27/1999 Legeak, uztailaren 16koak, xedatutakoaren arabera.

7. Enplegatze-agentziak, aldi baterako laneko enpresak eta enpresa erabil-tzaileak, haien berariazko legerian eta lan-arriskuen prebentzioaren legerian

específica y en la de prevención de riesgos laborales, sin perjuicio de lo establecido en otros números de este artículo.

8. Los empresarios titulares de centro de trabajo, los promotores y propietarios de obra y los trabajadores por cuenta propia que incumplan las obligaciones que se deriven de la normativa de prevención de riesgos laborales.

9. Las entidades especializadas que actúen como servicios de prevención ajenos a las empresas, las personas o entidades que desarrollen la actividad de auditoría del sistema de prevención de las empresas y las entidades acreditadas para desarrollar y certificar la formación en materia de prevención de riesgos laborales que incumplan las obligaciones establecidas en la normativa sobre dicha materia.

10. Las personas físicas o jurídicas y las comunidades de bienes titulares de los centros de trabajo y empresas de dimensión comunitaria situadas en territorio español, respecto de los derechos de información y consulta de los trabajadores en los términos establecidos en su legislación específica.

11. Los empresarios incluidos en el ámbito de aplicación de la normativa legal que regula el desplazamiento de trabajadores en el marco de una prestación de servicios transnacional, respecto de las condiciones de trabajo que deben garantizar a dichos trabajadores desplazados temporalmente a España.

12. Las sociedades europeas y las sociedades cooperativas europeas con domicilio social en España, las sociedades, entidades jurídicas y, en su caso, las personas físicas domiciliadas en España que participen directamente en la constitución de una sociedad europea o de una sociedad cooperativa europea, así como las personas físicas o jurídicas o comunidades de bienes titulares de los centros de trabajo situados en España de las sociedades europeas y de las sociedades cooperativas europeas y de sus empresas filiales y de las sociedades y entidades jurídicas participantes, cualquiera que sea el Estado miembro en que se encuentren domiciliadas, respecto de los derechos de información, consulta y participación de los trabajadores, en los términos establecidos en su legislación específica.

13. Las empresas de inserción, respecto de las obligaciones que se establecen en su legislación específica, sin perjuicio de lo establecido en otros números de este artículo.

14. Las fundaciones y asociaciones de utilidad pública beneficiarias de donaciones y acciones de patrocinio para el desarrollo de actividades de inserción y de creación de empleo de personas con discapacidad, como medida alternativa al cumplimiento de la obligación de reserva de empleo a favor de las personas con discapacidad.

ezarritako betebeharrei dagokienez, hargatik eragotzi gabe artikulu honetako beste zenbaki batzuetan ezarritakoa.

8. Lantokiaren titularrak diren enpresaburuak, eraikuntza-lanen sustatzailerak eta jabeak, eta beren konturako langileak, lan-arriskuen prebentzioaren arauditik datozkien betebeharrak betetzen ez dituztenean.

9. Enpresatik kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa diharduten entitate espezializatuak, enpresen prebentzio-sistemaren auditoria egiten duten pertsonak edo entitateak, eta lan-arriskuen prebentzioaren alorreko prestakuntza garatu eta ziurtatzeko akreditatuak dauden entitateak, gai horri buruzko araudian ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenean.

10. Pertsona fisiko nahiz juridikoak eta ondasun-erkidegoak, Europar Erki-degoaren mailako lantoki edo enpresa baten titularrak direnean, lantoki edo enpresa hori Espainiako lurraldean baldin badago, langileen informazio- eta kontsulta-eskubideei dagokienez, gai horiei buruzko legerian ezarritako moduan.

11. Enpresaburuak, zerbitzu-emate transnazional baten barruan langileak nola lekualdatu arautzen duen lege-araudiaren aplikazio-eremuan sartuta daudenean, Espainiara aldi baterako lekualdatzen dituzten langile horiei bermatu beharreko lan-baldintzei dagokienez.

12. Egoitza soziala Espainian duten sozietate europarrak eta kooperatiba-sozietate europarrak; sozietate europar baten edo kooperatiba-sozietate europar baten eraketan zuzenean parte hartzen duten sozietateak, entitate juridikoak eta, hala badagokio, pertsona fisikoak, egoitza Espainian badute; pertsona fisiko nahiz juridikoak edo ondasun-erkidegoak, Espainian dagoen lantoki baten titularrak direnean, baldin eta lantoki hori sozietate europar batena, sozietate kooperatibo europar batena, horien mendeko enpresa batena edo horietan parte hartzen duten sozietate zein entitate juridiko batena badira, zeinahi estatu kideetan dutela beren egoitza, langileen informazio-, kontsulta- eta partehartze-eskubideei dagokienez, gai horiei buruzko legerian ezarritako moduan.

13. Laneratze-enpresak, haien berariazko legerian ezarritako betebeharrei dagokienez, hargatik eragotzi gabe artikulu honetako beste zenbaki batzuetan ezarritakoa.

14. Fundazioak eta onura publikoko elkarteak, dohaintzak eta babesletzak jasotzen dituztenean desgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko eta haientzat enplegua sortzeko jardueretarako, desgaitasunen bat duten pertsonentzat enplegua erreserbatzeko betebeharraren ordezkotzat neurri gisa.

Artículo 3. Concurrencia con el orden jurisdiccional penal

1. No podrán sancionarse los hechos que hayan sido sancionados penal o administrativamente, en los casos en que se aprecie identidad de sujeto, de hecho y de fundamento.

2. En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de ilícito penal, la Administración pasará el tanto de culpa al órgano judicial competente o al Ministerio Fiscal y se abstendrá de seguir el procedimiento sancionador mientras la autoridad judicial no dicte sentencia firme o resolución que ponga fin al procedimiento o mientras el Ministerio Fiscal no comunique la improcedencia de iniciar o proseguir actuaciones.

3. De no haberse estimado la existencia de ilícito penal, o en el caso de haberse dictado resolución de otro tipo que ponga fin al procedimiento penal, la Administración continuará el expediente sancionador en base a los hechos que los Tribunales hayan considerado probados.

4. La comunicación del tanto de culpa al órgano judicial o al Ministerio Fiscal o el inicio de actuaciones por parte de éstos, no afectará al inmediato cumplimiento de las medidas de paralización de trabajos adoptadas en los casos de riesgo grave e inminente para la seguridad o salud del trabajador, a la efectividad de los requerimientos de subsanación formulados, ni a los expedientes sancionadores sin conexión directa con los que sean objeto de las eventuales actuaciones jurisdiccionales del orden penal.

Artículo 4. Prescripción de las infracciones

1. Las infracciones en el orden social a que se refiere la presente Ley prescriben a los tres años contados desde la fecha de la infracción, salvo lo dispuesto en los números siguientes.

2. Las infracciones en materia de Seguridad Social prescribirán a los cuatro años, contados desde la fecha de la infracción.

3. En materia de prevención de riesgos laborales, las infracciones prescribirán al año las leves, a los tres años las graves y a los cinco años las muy graves, contados desde la fecha de la infracción.

4. Las infracciones a la legislación de sociedades cooperativas prescribirán: las leves, a los tres meses; las graves, a los seis meses; y las muy graves, al año, contados desde la fecha de la infracción.

3. artikulua. Kasua jurisdikzio-arlo penalari ere egokitzea

1. Arlo penalean edo administratiboan zigortutako egitateak ezin zigortuko dira berriz, subjektua, egitatea eta oinarria berberak direla hautematen den kasuetan.

2. Arau-haustek ez-zilegi penalak izan daitezkeen kasuetan, administrazioak erruduntasun-testigantza organo judizial eskudunari edo Fiskaltzari pasatuko dio eta ez du aurrera jarraituko zehapen-prozedurarekin, harik eta agintari judizialek epai irmorik edo zigor-prozedura amaituko duen ebazpenik ematen ez duten arte edo Fiskaltzak jarduketak abiaraztea edo jarraitzea bidezkoa ez dela jakinarazten ez duen arte.

3. Ez-zilegi penala badela baietsi ez bada, edo zigor-prozedura amaitzen duen bestelako ebazpena eman bada, administrazioak aurrera jarraituko du zehapen-espedientearekin, auzitegiek frogatutzat hartutako egitateetan oinarriturik.

4. Erruduntasun-testigantza organo judizialari edo Fiskaltzari helarazteak edo haiek jarduketak abiarazteak ez du eraginik izango ez lanak geldiarazteko neurriak berehala betetzean, langileen segurtasuna edo osasuna hurbil-hurbileko arrisku larrian dagoen kasuetan, ez aurrez egindako zuzenketa-errekimenduen eraginkortasunean, ez eta beste zehapen-espedienteetan ere, arlo penaleko jurisdikzio-jarduketetan aztergai direnekin lotura zuzenik ez badute.

4. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa

1. Lege honetan aipatzen diren arau-haustek hiru urteren buruan preskribatuko dira, arau-haustearen egunetik kontaktzen hasita, hurrengo zenbakietan xedatutakoa salbu.

2. Gizarte Segurantzaren arloko arau-haustek lau urteren buruan preskribatuko dira, arau-haustearen egunetik kontaktzen hasita.

3. Lan-arriskuen prebentzioaren arloan, arau-hauste arinak urtebeteren buruan preskribatuko dira; larriak, hiru urteren buruan; eta oso larriak, bost urteren buruan; betiere arau-haustearen egunetik kontaktzen hasita.

4. Kooperatiba-sozietateen legeriari buruzko arau-hauste arinak hiru hilabeteren buruan preskribatuko dira; larriak, sei hilabeteren buruan; eta oso larriak, urtebeteren buruan; betiere arau-haustearen egunetik kontaktzen hasita.

CAPÍTULO II

Infracciones laborales

Artículo 5. Concepto

1. Son infracciones laborales las acciones u omisiones de los empresarios contrarias a las normas legales, reglamentarias y cláusulas normativas de los convenios colectivos en materia de relaciones laborales, tanto individuales como colectivas, de colocación, empleo, formación profesional ocupacional, de trabajo temporal y de inserción sociolaboral, tipificadas y sancionadas de conformidad con la presente Ley. Asimismo, tendrán dicha consideración las demás acciones u omisiones de los sujetos responsables y en las materias que se regulan en el presente Capítulo.

2. Son infracciones laborales en materia de prevención de riesgos laborales las acciones u omisiones de los diferentes sujetos responsables que incumplan las normas legales, reglamentarias y cláusulas normativas de los convenios colectivos en materia de seguridad y salud en el trabajo sujetas a responsabilidad conforme a esta Ley.

3. Son infracciones laborales en materia de derechos de implicación de los trabajadores en las sociedades europeas las acciones u omisiones de los distintos sujetos responsables contrarias a la Ley sobre implicación de los trabajadores en las sociedades anónimas y cooperativas europeas, o a sus normas reglamentarias de desarrollo, a las disposiciones de otros Estados miembros con eficacia en España, a los acuerdos celebrados conforme a la Ley o a las disposiciones citadas, y a las cláusulas normativas de los convenios colectivos que complementan los derechos reconocidos en las mismas, tipificadas y sancionadas de conformidad con esta Ley.

SECCIÓN 1.^a

Infracciones en materia de relaciones laborales

Subsección 1.^a

Infracciones en materia de relaciones laborales individuales y colectivas

Artículo 6. Infracciones leves

Son infracciones leves:

II. KAPITULUA

Lan-arloko arau-hausteak

5. artikulua. Kontzeptua

1. Enpresaburuen egiteak nahiz ez-egiteak lan-arloko arau-hausteak izango dira, baldin banakako nahiz taldekako lan-harremani, enplegatzeari, enpleguari, lanerako lanbide-prestakuntzari, aldi baterako lanari eta laneratze eta gizarteratzeari buruzko lege-arau, erregelamendu-arau eta hitzarmen kolektiboen klausula arauemaileen kontrakoak badira eta lege honen arabera tipifikatuta eta zigortuta badaude. Era berean, halakotzat joko dira subjektu erantzuleek kapitulu honetan arautzen diren gaitan egindako gainerako egiteak nahiz ez-egiteak ere.

2. Subjektu erantzuleen egiteak nahiz ez-egiteak lanari buruzko arau-hausteak izango dira lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, laneko segurtasun eta osasunaren alorrari buruzko lege-arauak, erregelamendu-arauak edo hitzarmen kolektiboen klausula arauemaileak betetzen ez direnean eta lege honen arabera haien erantzukizuna eskatzeko modukoa denean.

3. Subjektu erantzuleen egiteak nahiz ez-egiteak lanari buruzko arau-hausteak izango dira langileek sozietate europarretan inplikatzeko dituzten eskubideei dagokienez, baldin Langileek Sozietate Anonimo eta Kooperatibo Europarretan Inplikatzeari buruzko Legearen edo hura garatzen duten erregelamendu-arauen kontrakoak badira, Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuek eman eta Espainian eraginkorrak diren xedapenen kontrakoak badira, legearen edo aipatutako xedapenen arabera egindako akordioen kontrakoak badira, eta hitzarmen kolektiboek aurreko xedapen horietan aitortutako eskubideak osatzeko jasotzen dituzten klausula arau-emaileen kontrakoak badira, betiere lege honetan tipifikatuta eta lege honen arabera zigortuta baldin badaude.

1. ATALA

Lan-harremani buruzko arau-hausteak

1. azpiatala

Banakako nahiz taldekako lan-harremani buruzko arau-hausteak

6. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak dira:

1. No exponer en lugar visible del centro de trabajo el calendario laboral vigente.

2. No entregar puntualmente al trabajador el recibo de salarios o no utilizar el modelo de recibo de salarios aplicable, oficial o pactado.

3. No poner a disposición de los trabajadores a domicilio el documento de control de la actividad laboral que realicen.

4. No informar por escrito al trabajador sobre los elementos esenciales del contrato y las principales condiciones de ejecución de la prestación laboral, en los términos y plazos establecidos reglamentariamente.

4 bis. La falta de entrega al trabajador por parte del empresario del documento justificativo al que se refiere el artículo 15.9 del Estatuto de los Trabajadores.

5. No informar a los trabajadores a tiempo parcial y con contratos de duración determinada o temporales sobre las vacantes existentes en la empresa, en los términos previstos en los artículos 12.4 y 15.7 del Estatuto de los Trabajadores.

6. Cualesquiera otros incumplimientos que afecten a obligaciones meramente formales o documentales.

Artículo 7. Infracciones graves

Son infracciones graves:

1. No formalizar por escrito el contrato de trabajo cuando este requisito sea exigible o cuando lo haya solicitado el trabajador.

2. La transgresión de la normativa sobre modalidades contractuales, contratos de duración determinada y temporales, mediante su utilización en fraude de ley o respecto a personas, finalidades, supuestos y límites temporales distintos de los previstos legal, reglamentariamente, o mediante convenio colectivo cuando dichos extremos puedan ser determinados por la negociación colectiva.

3. No consignar en el recibo de salarios las cantidades realmente abonadas al trabajador.

4. El incumplimiento de las obligaciones establecidas en materia de tramitación de los recibos de finiquito.

5. La transgresión de las normas y los límites legales o pactados en materia de jornada, trabajo nocturno, horas extraordinarias, horas complementarias, descansos, vacaciones, permisos y, en general, el tiempo de trabajo a que se refieren los artículos 12, 23 y 34 a 38 del Estatuto de los Trabajadores.

1. Lantokian, ikusteko moduko toki batean ez ipintzea indarrean dagoen lan-egutegia.

2. Langileari soldata-ordainagiria garaiz ez ematea edo soldata-ordainagiriaren eredu aplikagarria, ofiziala nahiz hitzartua, ez erabiltzea.

3. Lana etxean egiten duten langileen eskura ez ipintzea haien lan-jarduerari buruzko kontrol-agiria.

4. Langileari kontratuaren oinarrizko osagaiak eta lan-prestazioa betetzeko baldintza nagusiak idatziz ez jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarritako modu eta epeetan.

4. bis. Enpresaburuak langileari ez ematea Langileen Estatutuaren 15.9 artikuluan aipatutako frogatze-agiria.

5. Lanaldi partzialeko langileei eta iraunaldi zehatzeko kontratuak edo aldi baterakoak dituztenei enpresan dauden lanpostu hutsen berri ez ematea Langileen Estatutuan 12.4 eta 15.7 artikuluetan ageri den moduan.

6. Beste zeinahi betebeharrak formal edo dokumental huts ez betetzea.

7. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak dira:

1. Lan-kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.

2. Kontratu-motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, lege-iruzurrez erabili direlako edo ez direlako erabili dagozkien pertsonekin edo dagozkien helburu, kasu nahiz denborazko mugak betez, legeetan, erregelamenduetan edo, puntu horiek negoziazio kolektiboan zehaztu daitezkeenean, hitzarmen kolektiboetan aurreikusitakoaren arabera.

3. Langileari benetan ordaindutako diru kopuruak ez agerraraztea soldata-ordainagirian.

4. Kitoaren ordainagiria izapidetzeari buruz ezarritako betebeharrak ez betetzea.

5. Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor, baimen eta, oro har, Langileen Estatutuaren 12., 23. eta 34.etik 38.era arteko artikuluetan aipatzen den lan-denborari buruzko arauak eta legezko nahiz hitzarturiko mugak urratzea.

6. La modificación de las condiciones sustanciales de trabajo impuesta unilateralmente por el empresario, según lo establecido en el artículo 41 del Estatuto de los Trabajadores.

7. La transgresión de los derechos de información, audiencia y consulta de los representantes de los trabajadores y de los delegados sindicales, en los términos en que legal o convencionalmente estuvieren establecidos.

8. La transgresión de los derechos de los representantes de los trabajadores y de las secciones sindicales en materia de crédito de horas retribuidas y locales adecuados para el desarrollo de sus actividades, así como de tabloneros de anuncios, en los términos en que legal o convencionalmente estuvieren establecidos.

9. La vulneración de los derechos de las secciones sindicales en orden a la recaudación de cuotas, distribución y recepción de información sindical, en los términos en que legal o convencionalmente estuvieren establecidos.

10. Establecer condiciones de trabajo inferiores a las establecidas legalmente o por convenio colectivo, así como los actos u omisiones que fueren contrarios a los derechos de los trabajadores reconocidos en el artículo 4 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, salvo que proceda su calificación como muy graves, de acuerdo con el artículo siguiente.

11. El incumplimiento del deber de información a los trabajadores en los supuestos de contratas al que se refiere el artículo 42.3 del Estatuto de los Trabajadores, así como del deber de información a los trabajadores afectados por una sucesión de empresa establecido en el artículo 44.7 del mismo texto legal.

12. No disponer la empresa principal del libro registro de las empresas contratistas o subcontratistas que compartan de forma continuada un mismo centro de trabajo a que se refiere el artículo 42.4 del Estatuto de los Trabajadores, cuando ello comporte la ausencia de información a los representantes legales de los trabajadores.

13. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación.

Artículo 8. Infracciones muy graves

Son infracciones muy graves:

1. El impago y los retrasos reiterados en el pago del salario debido.

6. Enpresaburuak bere kasa funtsezko lan-baldintzen aldaketa inposatzea, Langileen Estatutuak 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. Langileen ordezkarien eta delegatu sindikalen informazio-, entzuerara eta kontsulta-eskubideak urratzea, legez edo hitzarmenez ezarritakoaren arabera.

8. Langileen ordezkariak eta sindikatu atalek ordu ordainduen kredituari, beren jarduerak gauzatzeko lokal egokiei eta iragarki-taulei dagokienez dituzten eskubideak urratzea, legez edo hitzarmenez ezarritakoaren arabera.

9. Sindikatu atalek kuotak biltzeko eta sindikatu-informazioa eman eta jasotzeko duten eskubidea urratzea, legez edo hitzarmenez ezarritakoaren arabera.

10. Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan-baldintzak baino txarra-
goak ezartzea, eta, orobat, Langileen Estatutuaren Legearen 4. artikuluan lan-
gileei aitortutako eskubideen kontrako egiteak nahiz ez-egiteak burutzea, non
eta, hurrengo artikulua arabera, ez dagokien oso larritzat jotzea.

11. Kontraten kasuan langileak informatzeko eginbeharra, Langileen Es-
tatutuaren 42.3 artikuluan aipatzen dena, ez betetzea, eta baita enpresa-ondo-
rengotza batek ukitutako langileak informatzeko eginbeharra, lege-testu bereko
44.7 artikuluan ezarria, ez betetzea ere.

12. Enpresa nagusiak lantoki bera modu etengabea partekatzen duten en-
presa kontratisten edo azpikontratisten erregistro-liburua, Langileen Estatutu-
aren 42.4 artikuluan aipatutakoa, ez izatea, horrek langileen legezko ordezkariak
ez informatzea berekin dakarrenean.

13. Langileen Estatutuak edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak ber-
dintasun-planei buruz ezartzen dituzten betebeharrak ez betetzea.

8. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak dira:

1. Langileari zor zaion soldata ez ordaintzea edo ordainketa atzeratzea
behin eta berriro.

2. La cesión de trabajadores en los términos prohibidos por la legislación vigente.

3. El cierre de empresa o el cese de actividades, temporal o definitivo, efectuados sin la autorización de la autoridad laboral, cuando fuere preceptiva.

4. La transgresión de las normas sobre trabajo de menores contempladas en la legislación laboral.

5. Las acciones u omisiones que impidan el ejercicio del derecho de reunión de los trabajadores, de sus representantes y de las secciones sindicales, en los términos en que legal o convencionalmente estuvieran establecidos.

6. La vulneración del derecho de asistencia y acceso a los centros de trabajo, en los términos establecidos por el artículo 9.1 c), de la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical, de quienes ostenten cargos electivos a nivel provincial, autonómico o estatal en las organizaciones sindicales más representativas.

7. La transgresión de los deberes materiales de colaboración que impongan al empresario las normas reguladoras de los procesos electorales a representantes de los trabajadores.

8. La transgresión de las cláusulas normativas sobre materia sindical establecidas en los convenios colectivos.

9. La negativa del empresario a la reapertura del centro de trabajo en el plazo establecido, cuando fuera requerida por la autoridad laboral competente en los casos de cierre patronal.

10. Los actos del empresario lesivos del derecho de huelga de los trabajadores consistentes en la sustitución de los trabajadores en huelga por otros no vinculados al centro de trabajo al tiempo de su ejercicio, salvo en los casos justificados por el ordenamiento.

11. Los actos del empresario que fueren contrarios al respeto de la intimidad y consideración debida a la dignidad de los trabajadores.

12. Las decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas desfavorables por razón de edad o discapacidad o favorables o adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo, origen, incluido el racial o étnico, estado civil, condición social, religión o convicciones, ideas políticas, orientación sexual, adhesión o no a sindicatos y a sus acuerdos, vínculos de parentesco con otros trabajadores en la empresa o len-

2. Langileak beste enpresa bati lagatzea indarrean dagoen legeriak debekatutako moduetan.

3. Enpresa ixtea edo enpresa-jarduerari uztea, aldi baterako nahiz behin betiko, lan-agintaritzaren baimenik gabe, baimen hori nahitaezkoa denean.

4. Lan-legerian adingabeen lanari buruz ezarritako arauak urratzea.

5. Langileei, langileen ordezkarietara eta sindikatu atalei biltzeko duten eskubidea baliatzen uzten ez dieten egiteak nahiz ez-egiteak, legeek edo hitzarmenek eskubide horiei buruz ezarritakoaren arabera.

6. Ordezkaritasun nagusiko erakunde sindikaletan probintzia-, autonomia-erkidego nahiz estatu-mailako hautespen-karguak dituztenek lantokietan sartzeko eta han egoteko duten eskubidea urratzea, Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Legearen 9.1. c) artikuluan ezarritako moduan.

7. Langileen ordezkariak aukeratzeko hauteskunde-prozesuak erregulatzeko dituzten arauak enpresaburuari ezartzen dizkieten lankidetzako eginbehar materialak urratzea.

8. Hitzarmen kolektiboetan arlo sindikalari buruz ezarritako klausula arauemaileak urratzea.

9. Enpresaburuak lantokia epearen barruan berriro zabaltzeari uko egitea lan-agintaritzaren eskudunak hala egiteko agindu dionean, ugazaben itxieretan.

10. Enpresaburuak greban dauden langileak lantokiari lotuta ez dauden beste batzuekin ordezkatzeko eskubide horretaz baliatzen ari diren bitartean, langileen greba-eskubidearen kaltean, ordenamenduak justifikatutako kasuetan izan ezik.

11. Enpresaburuak langileen intimitateari eta duintasunari zor zaien errespetuaren kontra egiten dituen egintzak.

12. Enpresak bere kasa hartzen dituen eta diskriminazio zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten erabakiak, bai langileen kaltekoak badira adina edo desgaitasuna direla eta, bai, langileen aldekoak nahiz aurkakoak izanik, sexua, jatorria —arrazakoa zein etnikoa barne—, egoera zibila, gizarte-maila, erlijioa edo sinesteak, ideia politikoak, sexu-joera, sindikatuei eta sindikatuen erabakiei atxikitzea edo ez atxikitzea, enpresako beste langile batzuekin ahaidetasun-lotura izatea edo Espainiako estatuan hizkuntza direla-eta diskrimina-

gua dentro del Estado español, así como las decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación.

13. El acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma.

13 bis. El acoso por razón de origen racial o étnico, religión o convicciones, discapacidad, edad y orientación sexual y el acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo.

14. El incumplimiento por el empresario de la obligación establecida en el apartado 10 del artículo 51 del Estatuto de los Trabajadores o de las medidas sociales de acompañamiento asumidas por el empresario en el marco de los procedimientos de despido colectivo.

15. El incumplimiento por la empresa de la obligación de instrumentar los compromisos por pensiones con el personal de la empresa en los términos establecidos en la normativa reguladora de los planes y fondos de pensiones.

16. El incumplimiento de la normativa sobre limitación de la proporción mínima de trabajadores contratados con carácter indefinido contenida en la Ley Reguladora de la Subcontratación en el Sector de la Construcción y en su reglamento de aplicación.

17. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el apartado 2 del artículo 46 bis de esta Ley.

Subsección 2.^a

Infracciones en materia de derechos de información y consulta de los trabajadores en las empresas y grupos de empresas de dimensión comunitaria

Artículo 9. Infracciones graves y muy graves

1. Son infracciones graves, salvo que proceda su calificación como muy graves de conformidad con lo dispuesto en el apartado siguiente de este artículo:

a) No facilitar la información solicitada sobre el número de trabajadores a efectos de definir la existencia de una empresa o grupo de empresas de dimen-

ziorik sortzen badute lansari, lanaldi, prestakuntza, sustapen edo gainerako lan-baldintzen arloan, bai eta, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bete dadila galdatzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurrean edo administrazio-akzio zein akzio judizial baten aurrean, enpresaburuak erreakzioz langileen kaltean hartzen dituen erabakiak ere.

13. Sexu-jazarpena, enpresa-zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren esparruan gertatzen denean, edozein dela ere jazarpenaren subjektu aktiboa.

13 bis. Arraza nahiz etniarengatik, erlijio edo sinesteengatik, desgaitasunarengatik, adinarengatik eta sexu-joerarengatik egindako jazarpena eta sexu-jazarpena, enpresa-zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren esparruan gertatzen direnean, edozein dela ere jazarpenaren subjektu aktiboa, betiere enpresaburuak, haren berri jakinda, eragozteko behar ziren neurriak hartu ez baditu.

14. Enpresaburuak Langileen Estatutuaren 51. artikuluko 10 zenbakian ezarritako betebeharra ez betetzea edo kaleratze kolektiborako prozeduren esparruan enpresaburuak bere gain hartutako laguntza-neurri sozialak ez betetzea.

15. Enpresak enpresako langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak gauzatzeko betebeharra ez betetzea pentsio-planak eta pentsio-funtsak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.

16. Mugagabe kontratatutako langileen gutxieneko proportzioa mugatzeari buruzko arauak ez betetzea, Eraikuntza Sektoreko Azpikontratazioa Arautzen duen Legean eta haren aplikazio-erregelamenduan jasotakoaren arabera.

17. Berdintasun-plana ez egitea edo ez aplikatzea, edo, nabarmen, aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituela egitea edo aplikatzea, plan hori egiteko betebeharra lege honek 46 bis artikuluko 2. zenbakian ezarritakotik datorrenean.

2. azpiatala

Europar Erkidegoaren mailako enpresetako nahiz enpresa taldeetako langileen informazio- eta kontsulta-eskubideei buruzko arau-hausteak

9. artikulua. Arau-hauste larriak eta oso larriak

1. Arau-hauste larriak dira, non eta ez dagokien oso larritzat jotzea artikuluko honen hurrengo zenbakian ezarritakoaren arabera:

a) Langile kopuruari buruz eskatutako informazioa ez ematea, baldin eta informazio hori eskatu bada enpresa bat edo enpresa talde bat Europar Erki-

sión comunitaria con el fin de constituir un comité de empresa europeo o de establecer un procedimiento alternativo de información y consulta a los trabajadores.

b) No dar traslado a la dirección central de la petición de inicio de las negociaciones para la constitución de un comité de empresa europeo o el establecimiento de un procedimiento alternativo de información y consulta.

c) La transgresión de los derechos de reunión de la comisión negociadora, del comité de empresa europeo, y, en su caso, de los representantes de los trabajadores en el marco de un procedimiento alternativo de información y consulta, así como de su derecho a ser asistidos por expertos de su elección.

d) La transgresión de los derechos de la comisión negociadora, del comité de empresa europeo y, en su caso, de los representantes de los trabajadores en el marco de un procedimiento alternativo de información y consulta, en materia de recursos financieros y materiales para el adecuado funcionamiento y desarrollo de sus actividades.

e) La falta de convocatoria, en tiempo y forma, de las reuniones, ordinarias y extraordinarias, del comité de empresa europeo con la dirección central.

f) La transgresión de los derechos y garantías de los miembros de la comisión negociadora, del comité de empresa europeo y de los representantes de los trabajadores en el marco de un procedimiento alternativo de información y consulta, en los términos legal o convencionalmente establecidos.

2. Son infracciones muy graves:

a) Las acciones u omisiones que impidan el inicio y desarrollo de la negociación para la constitución de un comité de empresa europeo o el establecimiento de un procedimiento alternativo de información y consulta a los trabajadores.

b) Las acciones u omisiones que impidan el funcionamiento de la comisión negociadora, del comité de empresa europeo y del procedimiento alternativo de información y consulta, en los términos legal o convencionalmente establecidos.

c) Las acciones u omisiones que impidan el ejercicio efectivo de los derechos de información y consulta de los representantes de los trabajadores, incluido el abuso en el establecimiento de la obligación de confidencialidad en la información proporcionada o en el recurso a la dispensa de la obligación de comunicar aquellas informaciones de carácter secreto.

d) Las decisiones adoptadas en aplicación de la Ley 10/1997, de 24 de abril, sobre derechos de información y consulta de los trabajadores en las em-

degoaren mailakoa den zehazteko eta, hala bada, Europako enpresa-batzordea sortzeko, edo, bestela, langileei informazioa eman eta kontsulta egiteko ordezkoprozedura ezartzeko.

b) Europako enpresa-batzordea sortzeko edo informazio eta kontsultarako ordezkoprozedura ezartzeko negoziazioetan hasteko eskaera ez helaraztea zuzendaritza zentralari.

c) Negoziazio-batzordeak, Europako enpresa-batzordeak eta, hala badagokio, informazio eta kontsultarako ordezkoprozedura baten barruan, ordezkariak biltzeko eta aukeratzen dituzten adituen laguntza izateko dituzten eskubiak urratzea.

d) Negoziazio-batzordeak, Europako enpresa-batzordeak eta, hala badagokio, informazio eta kontsultarako ordezkoprozeduren barruan, langileen ordezkariak dituzten eskubiak urratzea, egoki funtzionatu eta jarduteko behar dituzten finantza-baliabideei eta baliabide materialei dagokienez.

e) Europako enpresa-batzordeak zuzendaritza zentralarekin egin beharreko bilera arrunt nahiz apartekoetarako deialdia garaiz eta forma egokian ez egitea.

f) Negoziazio-batzordeko kideek, Europako enpresa-batzordeko kideek eta, informazio eta kontsultarako ordezkoprozeduren barruan, langileen ordezkariak dituzten eskubiak eta bermeak urratzea, legeek edo hitzarmenek ezarritakoaren arabera.

2. Arau-hauste oso larriak dira:

a) Negoziazioa hasten eta egiten uzten ez duten egiteak nahiz ez-egiteak, Europako enpresa-batzordea sortu nahi denean edo langileei informazioa eman eta kontsulta egiteko ordezkoprozedura ezarri nahi denean.

b) Negoziazio-batzordeari, Europako enpresa-batzordeari eta informazio eta kontsultarako ordezkoprozedurari funtzionatzen uzten ez dioten egiteak nahiz ez-egiteak, legeek edo hitzarmenek ezarritakoaren arabera.

c) Langileen ordezkariak informazio- eta kontsulta-eskubideez benetan baliatzen uzten ez dieten egiteak nahiz ez-egiteak, horien artean dagoelarik bai emandako informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ezartzean bai isileko informazioak jakinarazteko eginbeharraren dispensaz baliatzean gehiegikeriaz jokatzea.

d) Europar Erkidegoaren maila duten enpresetako eta enpresa taldeetako langileen informazio- eta kontsulta-eskubideei buruzko apirilaren 24ko

presas y grupos de empresas de dimensión comunitaria, que contengan o supongan cualquier tipo de discriminación, favorable o adversa, por razón del sexo, nacionalidad, lengua, estado civil, condición social, ideas religiosas o políticas y adhesión o no a un sindicato, a sus acuerdos o al ejercicio, en general, de las actividades sindicales.

Subsección 3.^a

Infracciones de las obligaciones relativas a las condiciones de trabajo de los trabajadores desplazados temporalmente a España en el marco de una prestación transnacional

Artículo 10. Infracciones

1. Constituyen infracciones leves los defectos formales de la comunicación de desplazamiento de trabajadores a España en el marco de una prestación de servicios transnacional, en los términos legalmente establecidos.

2. Constituye infracción grave la presentación de la comunicación de desplazamiento con posterioridad a su inicio.

3. Constituye infracción muy grave la ausencia de comunicación de desplazamiento, así como la falsedad o la ocultación de los datos contenidos en la misma.

4. Sin perjuicio de lo anterior, constituye infracción administrativa no garantizar a los trabajadores desplazados a España, cualquiera que sea la legislación aplicable al contrato de trabajo, las condiciones de trabajo previstas por la legislación laboral española en los términos definidos por el artículo 3 de la Ley 45/1999, de 29 de noviembre, sobre el desplazamiento de trabajadores en el marco de una prestación de servicios transnacional, disposiciones reglamentarias para su aplicación, y en los convenios colectivos y laudos arbitrales aplicables en el lugar y en el sector o rama de la actividad de que se trate. La tipificación de dichas infracciones, su calificación como leves, graves o muy graves, las sanciones y los criterios para su graduación, se ajustarán a lo dispuesto en la presente Ley.

Subsección 4.^a

Infracciones en materia de derechos de información, consulta y participación de los trabajadores en las sociedades anónimas y sociedades cooperativas europeas

Artículo 10 bis. Infracciones graves y muy graves

1. Son infracciones graves, salvo que proceda su calificación como muy graves de conformidad con lo dispuesto en el apartado siguiente:

10/1997 Legea aplikatzean hartutako erabakiak, baldin eta edozein motatako diskriminazioa jasotzen edo eragiten badute, langileen onerako nahiz gaitzerako, sexua, nazionalitatea, hizkuntza, egoera zibila, gizarte-maila, ideia erlijioso nahiz politikoak eta sindikatu bati, sindikatu baten erabakiei edo, oro har, jarduera sindikalei atxikitzea edo ez atxikitzea dela eta.

3. azpiatala

Zerbitzu-emate transnazional baten barruan Espainiara aldi baterako lekualdatutako langileen lan-baldintzei dagozkien eginbeharren arau-hausteak

10. artikulua. Arau-hausteak

1. Zerbitzu-emate transnazional baten barruan lekualdatzearen komunikazioan egiten diren formazko akatsak arau-hauste arinak izango dira, legeek ezarritakoaren arabera, Espainiara langileak lekualdatzen direnean.

2. Lekualdatzearen komunikazioa lekualdatzea hasi ondoren aurkeztea arau-hauste larria izango da.

3. Lekualdatzearen komunikazioa ez egitea arau-hauste oso larria izango da, bai eta komunikazioan jasotako datuak faltsutzea nahiz ezkututzea ere.

4. Aurrekoa eragotzi gabe, arau-hauste administratiboa izango da Espainiara lekualdatutako langileei Espainiako lan-legerian ezarritako lan-baldintzak ez bermatzea, edozein dela ere lan-kontratuari aplikatzeko legeria, langileak zerbitzu-emate transnazionalen barruan lekualdatzeari buruzko azaroaren 29ko 45/1999 Legearen 3. artikulua, haren aplikaziorako erregelamenduzko xedapenek eta dagokion jardueraren lekuan eta haren sektore edo adarrean aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboek eta arbitraje-laudoek zehazturikoaren arabera. Arau-hauste horiek tipifikatzean, arin, larri edo oso larri kalifikazioa ematean eta zehapenak eta haiek mailakatzeko irizpideak zehaztean lege hone-tan xedatutakoari jarraituko zaio.

4. azpiatala

Sozietate europarretako eta kooperatiba-sozietate europarretako langileen informazio-, kontsulta- eta partehartze-eskubideei buruzko arau-hausteak

10 bis artikulua. Arau-hauste larriak eta oso larriak

1. Arau-hauste larriak dira, non eta ez dagokien oso larritzat jotzea hurrengo zenbakian ezarritakoaren arabera:

a) No facilitar a los representantes de los trabajadores las informaciones necesarias para la adecuada constitución de la comisión negociadora, en particular en lo relativo a la identidad de las sociedades o entidades jurídicas y, en su caso, personas físicas, participantes y de sus centros de trabajo y empresas filiales, el número de sus trabajadores, el domicilio social propuesto, así como sobre los sistemas de participación existentes en las sociedades o entidades jurídicas participantes, en los términos legalmente establecidos.

b) La trasgresión de los derechos de reunión de la comisión negociadora, del órgano de representación de los trabajadores de la SE o de la SCE o de los representantes de los trabajadores en el marco de un procedimiento de información y consulta, así como de su derecho a ser asistido por expertos de su elección.

c) La trasgresión de los derechos de la comisión negociadora, del órgano de representación y, en su caso, de los representantes de los trabajadores en el marco de un procedimiento de información y consulta, en materia de recursos financieros y materiales para el adecuado funcionamiento y desarrollo de sus actividades.

d) La falta de convocatoria, en tiempo y forma, de la comisión negociadora y de las reuniones, ordinarias y extraordinarias, del órgano de representación de los trabajadores con el órgano competente de la sociedad europea o de la sociedad cooperativa europea.

e) La trasgresión de los derechos y garantías de los miembros de la comisión negociadora, de los miembros del órgano de representación, de los representantes de los trabajadores que ejerzan sus funciones en el marco de un procedimiento de información y consulta y de los representantes de los trabajadores que formen parte del órgano de control o de administración de una sociedad europea, o de una sociedad cooperativa europea, en los términos legal o convencionalmente establecidos.

2. Son infracciones muy graves:

a) Las acciones u omisiones que impidan el inicio y desarrollo de la negociación con los representantes de los trabajadores sobre las disposiciones relativas a la implicación de los trabajadores en la sociedad europea o en la sociedad cooperativa europea.

d) Beren langileekin banaka edo taldeka ituna egitea haiek beren gain har dezaten guztiz edo partez enpresaburuaren kontura den prima edo kuota zatiren bat ordaintzeko betebeharra, edo, bestela, Gizarte Segurantzaren sistemak ematen dizkien eskubideei uko egin diezaieten.

e) Langilearen kotizazio-oinarria behar ez bezala igotzea, dagozkion prestazioak handitzeko, bai eta lan-kontratazioa egin delako itzurak egitea ere, behar ez bezalako prestazioak eskuratzeko.

f) Kotizazio-agirietan datu faltsuak edo okerrak deklaratzeko edo agerraraztea, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotetan iruzurrezko kenkariak sorrarazten dituztenean.

g) Dagokion organismo publikoari garaiz eta forma egokian honako datuak ez ematea: gizarte-prestazio ekonomikoen titularren identifikazio-datuak eta, prestazioak jasotzeko eskubidea sortarazi edo baldintzatzen duten neurrian, onuradunen, ezkontideen eta familia-unitatearen beste kideen datuak edo prestazioen zenbatekoei, prestazio-motei eta haien ematearen efektu-datei buruzkoak ere.

h) Agiriak faltsutzea etengabeko prestakuntzaren alorreko hobariak iruzurrez lortu edo gozatzeko asmoz.

2. Arau-hauste oso larrien kasuan, enpresaburuak Gizarte Segurantzaren prestazioak iruzurrez lortu edo gozaten dituen langile bakoitzeko arau-hauste bana egin duela ulertuko da.

En las infracciones señaladas en los párrafos a), c) y e) del apartado anterior el empresario responderá solidariamente de la devolución de las cantidades indebidamente percibidas por el trabajador.

Los empresarios que contraten o subcontraten la realización de obras o servicios correspondientes a la propia actividad, responderán solidariamente de las infracciones a que se refiere el apartado 1 a), anterior, cometidas por el empresario contratista o subcontratista durante todo el período de vigencia de la contrata.

3. Las infracciones de este artículo, además de a las sanciones que correspondan por aplicación del Capítulo VI, darán lugar a las sanciones accesorias previstas en el artículo 46 de esta Ley.

SECCIÓN 2.^a

Infracciones de los trabajadores o asimilados, beneficiarios y solicitantes de prestaciones

Artículo 24. Infracciones leves

Son infracciones leves:

1. No facilitar a la entidad correspondiente o a la empresa, cuando le sean requeridos, los datos necesarios para su afiliación o su alta en la Seguridad Social y, en su caso, las alteraciones que en ellos se produjeran, los de la situación de pluriempleo, y, en general, el incumplimiento de los deberes de carácter informativo.

2. No comparecer, previo requerimiento, ante la entidad gestora de las prestaciones en la forma y fecha que se determinen, salvo causa justificada.

3. En el caso de los solicitantes o beneficiarios de prestaciones por desempleo de nivel contributivo o asistencial, o de trabajadores por cuenta propia solicitantes o beneficiarios de la prestación por cese de actividad:

a) No comparecer, previo requerimiento, ante los servicios públicos de empleo o las agencias de colocación cuando desarrollen actividades en el ámbito de la colaboración con aquéllos, o no renovar la demanda de empleo en la forma y fechas que se determinen en el documento de renovación de la demanda, salvo causa justificada.

b) No devolver en plazo, salvo causa justificada, al servicio público de empleo o, en su caso, a las agencias de colocación sin fines lucrativos el correspon-

Aurreko zenbakiko a), c) eta e) paragrafoetan adierazitako arau-hausteetan, enpresaburuak erantzule solidarioa izango da langileak behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzultzea dela eta.

Beren jarduerari dagozkion obra edo zerbitzuak egitea kontratatzen edo azpikontratatzan dituzten enpresaburuak erantzule solidarioak izango dira kontratatistak edo azpikontratistak kontratak dirauen denbora guztian egiten dituen arau-hausteak direla eta, aurreko 1 a) zenbakian aipatutako arau-hausteei dago-kienz.

3. Artikulu honetako arau-hausteei, VI. kapitulua aplikaturik dagozkion zehapenez gainera, Lege honen 46. artikuluan aurreikusitako zehapen osagariak eragingo dituzte.

2. ATALA

Langileen edo berdinetzitatekoen, prestazioen onuradunen eta eskatzaileen arau-hausteak

24. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak dira:

1. Dagokion entitateari edo enpresari Gizarte Segurantzian afiliatzeko edo alta emateko behar diren datuak eta, hala badagokio, datu horietan gertatzen diren aldaketak eta enplegu-aniztasuneko egoerari buruzko datuak ez ematea, eskatzen zaizkionean, eta, oro har, informazio-eginbeharrak ez bete-tzea.

2. Prestazioak kudeatzen dituen entitatara ez agertzea zehaztutako modu eta datan, aurrez errekerimendua egin zaionean, arrazoi justifikaturik izan gabe.

3. Kontribuzio-mailako zein asistentzia-mailako langabezia-prestazioen eskatzaile edo onuradunen kasuan, edo jarduera-uzteari dagokion prestazioaren eskatzaile edo onuradun diren beren konturako langileen kasuan:

a) Enplegu-zerbitzu publikoetara edo enplegatze-agentzietara, haiekin lan-kidetzan dihardutenean, ez agertzea, aurrez errekerimendua egin zaionean, edo enplegu-eskaera ez berritzea eskaeraren berritze-agirian zehaztutako modu eta datetan, arrazoi justifikaturik izan gabe.

b) Enplegu-zerbitzu publikoari edo, hala badagokio, irabazteko asmorik ga-beko enplegatze-agentzietara itzuli beharreko frogagiria epe barruan ez itzultzea, arra-

diente justificante de haber comparecido en el lugar y fecha indicados para cubrir las ofertas de empleo facilitadas por aquéllos.

c) No cumplir las exigencias del compromiso de actividad, salvo causa justificada, siempre que la conducta no esté tipificada como otra infracción leve o grave en los artículos 24 o 25 de esta Ley.

A los efectos previstos en esta Ley, se entenderá por compromiso de actividad el que reúna los requisitos establecidos en el apartado 2 del artículo 231 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1994, de 20 de junio.

Artículo 25. Infracciones graves

Son infracciones graves:

1. Efectuar trabajos por cuenta propia o ajena durante la percepción de prestaciones, cuando exista incompatibilidad legal o reglamentariamente establecida, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo siguiente.

2. No comparecer, salvo causa justificada, a los reconocimientos médicos ordenados por las entidades gestoras o colaboradoras, en los supuestos así establecidos, así como no presentar ante las mismas los antecedentes, justificantes o datos que no obren en la entidad, cuando a ello sean requeridos y afecten al derecho a la continuidad en la percepción de la prestación.

3. No comunicar, salvo causa justificada, las bajas en las prestaciones en el momento en que se produzcan situaciones determinantes de suspensión o extinción del derecho, o cuando se dejen de reunir los requisitos para el derecho a su percepción cuando por cualquiera de dichas causas se haya percibido indebidamente la prestación.

4. En el caso de solicitantes o beneficiarios de prestaciones por desempleo de nivel contributivo o asistencial, o de trabajadores por cuenta propia solicitantes o beneficiarios de la prestación por cese de actividad:

a) Rechazar una oferta de empleo adecuada, ya sea ofrecida por los servicios públicos de empleo o por las agencias de colocación cuando desarrollen actividades en el ámbito de la colaboración con aquéllos, salvo causa justificada.

b) Negarse a participar en los trabajos de colaboración social, programas de empleo, incluidos los de inserción profesional, o en acciones de promoción, formación o reconversión profesional, salvo causa justificada, ofrecidos por los servicios públicos de empleo o en las acciones de orientación e información

zoi justifikaturik izan gabe, zerbitzu edo agentzia horiek emandako enplegu-eskaintzak betetzeko asmoz esandako leku eta egunean agertu dela justifikatzeko.

c) Jarduera-konpromisoaren eskakizunak ez betetzea, arrazoi justifikaturik izan gabe, jokabide hori lege honen 24 eta 25. artikuluetan beste arau-hauste arin edo larri gisa tipifikatuta ez badago.

Lege honetan aurreikusten denerako, jarduera-konpromisotzat hartuko da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginak, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 231. artikuluko 2. zenbakian ezarritako betekizunak betetzen dituena.

25. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak:

1. Beren kontura edo besteren kontura lanak egitea prestazioak jasotzen ari den bitartean, legez edo erregelamenduz ezarritako bateraezintasunak daudenean, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa.

2. Entitate kudeatzaile edo laguntzaileek agindutako osasun-azterketetara ez agertzea horrela egiteko ezarritako kasuetan, arrazoi justifikaturik izan gabe, bai eta entitateetan ez dituzten aurrekariak, frogagiriak edo datuak horiei ez aurkeztea ere, horretarako errekerimendua egiten zaienean eta prestazioa jasotzen jarraitzeko eskubidean eragina dutenean.

3. Prestazioen bajak ez jakinaraztea, arrazoi justifikaturik izan gabe, eskubidea geldieran utzi edo amaitzeko erabakigarriak diren egoerak gertatzen diren unean, edo prestazioa jasotzeko eskubiderako betekizunak betetzeari uzten zaionean horietako edozein arrazoiengatik prestazioa behar ez bezala jaso delako.

4. Kontribuzio-mailako zein asistentzia-mailako langabezia-prestazioen eskatzaile edo onuradunen kasuan, edo jarduera-uzteari dagokion prestazioaren eskatzaile edo onuradun diren beren konturako langileen kasuan:

a) Enplegu-zerbitzu publikoek edo enplegatze-agentziek, haiekin lankidetzan dihardutenean, eskainitako enplegu-eskaintza egoki bat ez onartzea, arrazoi justifikaturik izan gabe.

b) Enplegu-zerbitzu publikoek eskainitako gizarte-lankidetzako lanetan, enplegu-programetan, laneratzekoak barne, edo lanbiderako sustapen, prestakuntza zein birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egitea, arrazoi justifikaturik izan gabe, edo enplegatze-agentziek enplegu-zerbitzu publikoekin

profesional ofrecidas por las agencias de colocación cuando desarrollen actividades en el ámbito de la colaboración con aquéllos.

A los efectos previstos en esta Ley, se entenderá por colocación adecuada y por trabajos de colaboración social, los que reúnan los requisitos establecidos, respectivamente, en el artículo 231.3 y en el artículo 213.3 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

Artículo 26. Infracciones muy graves

Son infracciones muy graves:

1. Actuar fraudulentamente con el fin de obtener prestaciones indebidas o superiores a las que correspondan, o prolongar indebidamente su disfrute mediante la aportación de datos o documentos falsos; la simulación de la relación laboral; y la omisión de declaraciones legalmente obligatorias u otros incumplimientos que puedan ocasionar percepciones fraudulentas.

2. Compatibilizar el percibo de prestaciones o subsidio por desempleo, así como la prestación por cese de actividad de los trabajadores autónomos con el trabajo por cuenta propia o ajena, salvo en el caso del trabajo a tiempo parcial en los términos previstos en la normativa correspondiente. En el caso de subsidio por desempleo de los trabajadores eventuales agrarios, se entenderá que el trabajador ha compatibilizado el percibo de la prestación con el trabajo por cuenta ajena o propia cuando los días trabajados no hayan sido declarados en la forma prevista en su normativa específica de aplicación.

3. La connivencia con el empresario para la obtención indebida de cualesquiera prestaciones de la Seguridad Social.

4. La no aplicación o la desviación en la aplicación de las prestaciones por desempleo, que se perciban según lo que establezcan programas de fomento de empleo.

SECCIÓN 3.^a

Infracciones de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales de la Seguridad Social

Artículo 27. Infracciones leves

Son infracciones leves:

1. No cumplir las obligaciones formales relativas a diligencia, remisión y conservación de libros, registros, documentos y relaciones de trabajadores, así como de los boletines estadísticos.

lankidetzan dihardutenean eskaintako lanbiderako orientabide eta informaziorako ekintzetan parte hartzeari uko egitea.

Lege honetan aurreikusten denerako, enplegu egokitzat eta gizarte-elkarlanean lantzat hartuko dira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateginak 231.3 eta 213.3. artikuluetan hurrenez hurren ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

26. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak:

1. Behar ez bezalako prestazioak edo dagozkionak baino handiagoak lortzeko iruzurrez jokatzea, edo datu edo agiri faltsuak aurkeztuz haien gozamina behar ez bezala luzatzea; lan-harremana dagoela itxurak egitea; eta legez nahitaezkoak diren deklarazioak ez egitea edo iruzurrezko hartzeoak sorraraz ditzaketan beste ez-betetzeak egitea.

2. Langabezia-prestazioak edo -sorospena jasotzea, bai eta langile autonomoen jarduera-uzteagatiko prestazioa jasotzea ere, eta aldi berean beren kontura edo besteren kontura lan egitea, salbu eta aldi baterako lanaren kasuan, dagozkion araudian aurreikusitako moduan egiten bada. Behin-behineko langile nekazarien langabeziako sorospenaren kasuan, langileak prestazioa jasotzea eta besteren edo norbere kontura lan egitea batera egin dituela ulertuko da, lan egindako egunak berariazko araudi aplikagarrian aurreikusitako eran deklaratu ez direnean.

3. Enpresaburuarekin elkar hartzea Gizarte Segurantzaren zeinahi prestazio behar ez bezala lortzeko.

4. Enplegua sustatzeko programetan ezarritakoaren arabera jasotzen diren langabezia-prestazioak ez aplikatzea edo aplikazioan desbideratzeak egitea.

3. ATALA

Gizarte Segurantzaren lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuen arau-hausteak

27. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak dira:

1. Liburuen, erregistroen, agirien eta langile-zerrenden zuzemenak egiteari eta haiek bidali eta gordetzeari buruzko betebeharrak ez betetzea, bai eta estatistika-buletinei dagokienez ere.

2. Incumplir las obligaciones formales establecidas sobre inscripción, registro y conservación de documentos y certificados, en materia de reconocimientos médicos obligatorios.

3. No remitir al organismo competente, dentro del plazo y debidamente cumplimentados, los partes de accidentes de trabajo cuando éstos tengan carácter leve.

4. No informar a los empresarios asociados, trabajadores y órganos de representación del personal, y a las personas que acrediten un interés personal y directo, acerca de los datos a ellos referentes que obren en la entidad.

Artículo 28. Infracciones graves

Son infracciones graves:

1. No llevar al día y en la forma establecida los libros obligatorios, así como los libros oficiales de contabilidad o sistema contable autorizado, de conformidad con el plan general de contabilidad y normas presupuestarias de la Seguridad Social.

2. Aceptar la asociación de empresas no incluidas en el ámbito territorial o funcional de la entidad sin estar autorizadas; no aceptar toda proposición de asociación que formulen las empresas comprendidas en su ámbito de actuación; concertar convenios de asociación de duración superior a un año; y no proteger a la totalidad de los trabajadores de una empresa asociada correspondientes a centros de trabajo situados en la misma provincia, y no atender a las solicitudes de cobertura de la protección por cese de actividad de los trabajadores autónomos con los que tengan formalizada la cobertura por contingencias profesionales.

3. No observar las normas relativas a la denominación y su utilización, y a la constitución y funcionamiento de sus órganos de gobierno y de participación.

4. No remitir al organismo competente, dentro del plazo y debidamente cumplimentados, los partes de accidentes de trabajo y enfermedad profesional, cuando tengan carácter grave, muy grave o produzcan la muerte del trabajador.

5. No cumplir la normativa establecida respecto de constitución y cuantía en materia de fianza, gastos de administración, reservas obligatorias, así como la falta de remisión dentro de plazo al organismo competente del balance anual, memoria y cuenta de resultados, y presupuesto de ingresos y gastos debidamente aprobados y confeccionados.

2. Agiriak eta ziurtagiriak inskribatu, erregistratu eta gordetzeari buruz ezarritako betebeharrak ez betetzea, nahitaezko osasun-azterketaren alorrean.

3. Organismo eskudunari lan-istripuen agiriak epe barruan eta behar bezala beterik ez bidaltzea, istripuak arinak direnean.

4. Enpresaburu elkartuei, langileei eta langileak ordezkatzeko dituzten organoek, bai eta interes pertsonal eta zuzena egiaztatzen duten pertsonen ere, entitatean haiei buruz dauden datuei dagokienez ez informaziorik ematea.

28. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak dira:

1. Bai nahitaezko liburuak, bai kontabilitate-liburu ofizialak edo baimendutako kontabilitate-sistema egunean eta ezarritako moduan ez edukitzea, kontabilitate-plan nagusiarekin eta Gizarte Segurantzaren aurrekontu-arauekin bat etorritik.

2. Entitatearen lurralde-esparruan edo esparru funtzionalean sartzen ez diren enpresen elkarrekin onartzea, horretarako baimenik ez dutenean; bere jardun-esparruan sarturik dauden enpresek elkartzeko egiten dituzten proposamen guztiak ez onartzea; urtebete baino iraunaldi luzeagoko elkarrekin hitzarmenak egitea; eta enpresa elkartu bateko langile guztiak ez babestea, probintzia berean dauden lantokiei dagozkienean, eta langile autonomoen jardura-uzteagatik babesa estaltzeko eskabideei ez erantzutea, haiekin lanbide-kontingentzien estaldura formalizatuta daukatenean.

3. Izenari eta haren erabilerari, eta bere gobernu-organoen eta parte hartzeko organoen eraketari eta funtzionamenduari buruzko arauak ez betetzea.

4. Organismo eskudunari lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen agiriak epe barruan eta behar bezala beterik ez bidaltzea, larriak edo oso larriak direnean edo langilearen heriotza eragiten dutenean.

5. Fidantzaren, administrazio-gastuen eta nahitaezko erreserben eraketari eta zenbaterakoari buruz ezarritako araudia ez betetzea, bai eta urteko balantzea, oroitidazkia eta emaitza-kontua, eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua ere, behar bezala onartu eta eginda, organismo eskudunari ez bidaltzea epearen barruan.

6. No facilitar al organismo competente y, en todo caso, a los Servicios comunes y Entidades gestoras, cuantos datos soliciten en materia de colaboración, ni coordinar la actuación de la entidad con dichos organismos y con las Administraciones competentes en materia de gestión de servicios sociales u otras materias en las que colaboren las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales, así como la negativa a expedir a los empresarios asociados los certificados del cese de la asociación.

7. Dar publicidad o difundir públicamente informaciones y datos referentes a su actuación, sin la previa autorización del órgano superior de vigilancia y tutela, cuando la misma se requiera.

8. No solicitar en tiempo y forma establecidos las autorizaciones preceptivas en materia de inversiones, contratación con terceros, revalorización de activos y actualización de balances, y cualesquiera otras en materia económico-financiera en que así lo exijan las disposiciones en vigor.

9. No cumplir con la normativa relativa al reconocimiento, suspensión, extinción y reanudación derivada de la gestión de la prestación por cese de actividad de los trabajadores autónomos.

10. Incumplir la normativa de la prestación por cese de actividad de los trabajadores autónomos respecto a la gestión del desarrollo de convocatorias y acciones específicas de formación, orientación profesional, información, motivación, reconversión o inserción profesional del trabajador autónomo que se determinen.

11. La declaración o denegación de la fuerza mayor como situación legal del cese de actividad de los trabajadores autónomos sin tener en consideración la documentación aportada por el solicitante.

Artículo 29. Infracciones muy graves

Son infracciones muy graves:

1. Llevar a cabo operaciones distintas a aquellas a las que deben limitar su actividad o insertar en los convenios de asociación condiciones que se opongan a las normas de la Seguridad Social y de las que regulan la colaboración en la gestión de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales.

2. No contribuir en la medida que proceda al sostenimiento económico de los Servicios comunes de la Seguridad Social y no cumplir las obligaciones que procedan en materia de reaseguro o del sistema establecido de compensación de resultados.

6. Lankidetzaren alorrean eskatzen dizkieten datu guztiak organismo eskudunari eta, betiere, zerbitzu erkideei eta kudeaketa-entitateei ez ematea, entitatearen jarduera organismo horiekin eta gizarte-zerbitzuen kudeaketan edo lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuek laguntzen duten beste gaitan eskudunak diren administrazioekin ez koordinatzea, bai eta enpresaburu elkartuei elkartearen amaierari buruzko ziurtagiriak emateari uko egitea ere.

7. Bere jarduerari buruzko informazioak eta datuak publiko egitea edo jendaurrean zabaltzea, zaintza eta babeseko organo nagusiaren baimena aurrez izan gabe, baimen hori beharrezkoa denean.

8. Inbertsioei, hirugarren batzuekiko kontratazioari, aktiboen balio-handitzeari eta balantzeen eguneratzeari dagozkien nahitaezko baimenak, bai eta indarrean dauden xedapenek ekonomia eta finantzen alorrean eskatutako beste edozein ere, ez eskatzea finkatutako epean eta moduan.

9. Ez betetzea langile autonomoen jarduera-uzteagatiko prestazioa kudeatetik eratorritako aitortze, geldieran uzte, amaitze eta berriz ekiteari buruzko araudia.

10. Ez betetzea langile autonomoen jarduera-uzteagatiko prestazioaren araudia, langile autonomoa prestatu, lanbiderako orientatu, informatu, motibatu, birmoldatu edo lanbideratzeko zehazten diren berariazko deialdi eta ekintzen garapena kudeatzeari dagokionez.

11. Langile autonomoen jarduera-uztearen legezko egoera ezinbestekoa izan dela deklaratzeko edo ukatzeko eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa kontuan izan gabe.

29. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak:

1. Bere jardueraren mugetatik kanpoko eragiketak burutzea edo Gizarte Segurantzaren arauen aurkakoak zein lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuen kudeaketa-lankidetzara arautzen dutenen aurkakoak diren baldintzak sartzea elkartze-hitzarmenetan.

2. Gizarte Segurantzaren zerbitzu erkideen mantentze ekonomikoari ez laguntzea dagokion neurrian, eta berraseguratuaren edo emaitza-kompentsaziorako ezarritako sistemaren alorrean dagozkion betebeharrak ez betetzea.

3. Aplicar epígrafes de la tarifa de primas o, en su caso, las adicionales que procedan, distintas de las que sean perceptivamente obligatorias, según las actividades y trabajos de cada empresa, así como promover u obtener el ingreso de cantidades equivalentes o sustitutorias de las cuotas de la Seguridad Social por procedimientos diferentes a los reglamentarios.

4. Concertar, utilizar o establecer servicios sanitarios, de prevención de accidentes, de recuperación o de rehabilitación propios o de terceros, sin la previa autorización del organismo competente.

5. Exigir a las empresas asociadas, al convenir la asociación, el ingreso de cantidades superiores al importe anticipado de un trimestre de las correspondientes cuotas en concepto de garantía, o bien exigir dicho ingreso más de una vez.

6. Ejercer la colaboración en la gestión con ánimo de lucro; no aplicar el patrimonio estrictamente al fin social de la entidad; distribuir beneficios económicos entre los asociados, con independencia de su naturaleza; afectar los excedentes anuales a fines distintos de los reglamentarios; continuar en el ejercicio de la colaboración cuando concurren causas de disolución obligatoria sin comunicarlo al órgano competente; y no diferenciar las actividades desarrolladas como servicios de prevención, o no imputar a las mismas los costes derivados de tales actividades.

7. Incumplir el régimen de incompatibilidades y prohibiciones establecido en el artículo 75 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

8. El falseamiento de la declaración de fuerza mayor para que los trabajadores autónomos obtengan o disfruten fraudulentamente la prestación por cese de actividad, así como la connivencia con los trabajadores autónomos para la obtención de prestaciones indebidas, o para eludir el cumplimiento de las obligaciones que a cualquiera de ellos corresponda en materia de la prestación por cese de actividad.

9. Falta de diligencia suficiente en la supervisión de la gestión de la prestación, de forma reiterada y prolongada en el tiempo.

SECCIÓN 4.^a

Infracciones de las empresas que colaboran voluntariamente en la gestión

Artículo 30. Infracciones leves

Son infracciones leves:

3. Prima-tarifaren epigrafeak edo, hala badagokio, kasuari dagozkion gehigarriak aplikatzean enpresa bakoitzaren jarduera eta lanen arabera arauz nahitaezkoak direnak ez erabiltzea, bai eta Gizarte Segurantzaren kuoten balio-kideak edo ordezkioak diren zenbatekoen sarrera erregelamendutik kanpoko prozeduren bidez sustatu edo lortzea ere.

4. Norbere edo besteren osasun-zerbitzuak, istripu-prebentzioko zerbitzuak, sendatzekoak edo birgaitzekoak itundu, erabili edo ezartzea, aurretik organismo eskudunaren baimena izan gabe.

5. Enpresa elkartuei, elkartzea ituntzean, dagozkion kuotetatik hiruhi-leko baten zenbateko aurreratua baino zenbateko handiagoak sartzeko eskatzea berme gisa, edo diru-sarrera hori behin baino gehiagotan eskatzea.

6. Kudeaketa-lankidetzira irabazi-asmoz egitea; ondarea entitatearen sozietate-helburuari hertsiki ez aplikatzea; elkartuen artean onura ekonomikoak banatzea, edozein dela ere haien izaera; urteko soberakinak erregelamenduzkoak ez diren helburuetara lotzea; lankidetzira ematen jarraitzea nahitaez desegiteko arrazoiak daudenean, organo eskudunari jakinarazi gabe; eta prebentzio-zerbitzua gisa garatutako jarduerak ez desberdintzea, edo horrelako jardueretatik datozen kostuak haiei ez egozte.

7. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateginak 75. artikuluan ezarritako bateraezintasun- eta debeku-araubidea ez betetzea.

8. Ezinbestekotasun-deklarazioa faltsutzea langile autonomoek jardueratu-teagatik prestazioa iruzurrez lortu edo goza dezaten, bai eta langile autonomoekin elkar hartzea, behar ez bezalako prestazioak lortzeko edo haietako edozeini jardueratu-teagatik prestazioa dela-eta dagozkion betebeharrak betetzea saihesteko asmoz eginez gero.

9. Prestazioaren kudeaketa ikuskatzean nahiko arreta ez jartzea, behin eta berriro eta luzaroan.

4. ATALA

Kudeaketan borondatez laguntzen duten enpresen arau-hausteak

30. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak dira:

1. No llevar en orden y al día la documentación reglamentariamente exigida.
2. No dar cuenta, semestralmente, al comité de empresa de la aplicación de las cantidades percibidas para el ejercicio de la colaboración.

Artículo 31. Infracciones graves

Son infracciones graves:

1. No mantener las instalaciones sanitarias propias en las condiciones exigidas para la prestación de la asistencia.
2. No coordinar la prestación de asistencia sanitaria con los servicios sanitarios de la Seguridad Social.
3. Prestar la asistencia sanitaria con personal ajeno a los servicios de la Seguridad Social, salvo autorización al efecto.
4. Conceder prestaciones en tiempo, cuantía o forma distintos a los reglamentariamente establecidos.
5. No ingresar las aportaciones establecidas para el sostenimiento de los Servicios comunes.
6. No llevar en su contabilidad una cuenta específica que recoja todas las operaciones relativas a la colaboración.

Artículo 32. Infracciones muy graves

Son infracciones muy graves:

1. Ejercer las funciones propias del objeto de la colaboración sin previa autorización.
2. Continuar en el ejercicio de la colaboración después de la pérdida de los requisitos mínimos exigibles.
3. Destinar los excedentes de la colaboración a fines distintos de la mejora de las prestaciones.
4. No aplicar a los fines exclusivos de la colaboración, incluyendo en ella la mejora de las prestaciones, las cantidades deducidas de la cuota reglamentaria.

1. Erregelamenduz galdatutako dokumentazioa ordenaturik eta egunean ez edukitzea.

2. Enpresa-batzordeari, sei hilabetean behin, lankidetzaren egiteko jasotako zenbatekoen aplikazioaren kontu ez ematea.

31. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak dira:

1. Bere osasun-instalazioak osasun-laguntza emateko galdatutako baldintzetan ez edukitzea.

2. Osasun-laguntza ematean Gizarte Segurantzaren osasun-zerbitzuekin ez koordinatzea.

3. Osasun-laguntza Gizarte Segurantzaren zerbitzuetatik kanpoko langileen bidez ematea, horretarako baimenik izan ezean.

4. Prestazioak erregelamenduz ezarritako denbora, zenbateko edo formaz bestela ematea.

5. Zerbitzu erkideak mantentzeko ezarritako ekarpenak ez ordaintzea.

6. Bere kontabilitatean berariazko kontu bat ez edukitzea lankidetzari buruzko eragiketa guztiak biltzeko.

32. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak:

1. Lankidetzaren helburuaren funtzio propioak aurretik baimenik izan gabe egitea.

2. Gutxieneko betekizun galdagarriak galdu ondoren lankidetzaren jardunean jarraitzea.

3. Lankidetzaren soberakinak prestazioak hobetzeko helburuz bestelakoa zuzentzea.

4. Lankidetzaren helburu esklusiboak, horien artean prestazioen hobekuntza sarturik, erregelamenduzko kuotatik kendutako zenbatekoak ez aplikatzea.

CAPÍTULO IV

Infracciones en materia de movimientos migratorios y trabajo de extranjeros

SECCIÓN 1.^a

Infracciones en materia de movimientos migratorios

Artículo 33. Concepto

Son infracciones en materia de movimientos migratorios laborales las acciones u omisiones de los sujetos a quienes se refiere el artículo 2.4 tipificadas y sancionadas de conformidad con la presente Ley.

Artículo 34. Infracciones leves

Constituye infracción leve la modificación de las condiciones de la oferta de trabajo para desplazarse al exterior, si no causa perjuicio grave para el trabajador.

Artículo 35. Infracciones graves

Son infracciones graves:

1. La modificación de las condiciones de la oferta de trabajo para desplazarse al exterior, si causa perjuicio grave para el trabajador.
2. La ocultación, falsificación o rectificación de cláusulas sustanciales de un contrato de trabajo para desplazarse al exterior.
3. El desplazamiento del trabajador al país de acogida sin la documentación necesaria o la retención injustificada por la empresa de dicha documentación.
4. La contratación de marinos españoles por cuenta de empresas armadoras extranjeras realizada por personas o entidades no autorizadas por la autoridad laboral para realizar ese cometido.

Artículo 36. Infracciones muy graves

Son infracciones muy graves:

1. El establecimiento de cualquier tipo de agencias de reclutamiento.
2. La simulación o engaño en la contratación de los trabajadores que se desplazan al exterior.

IV. KAPITULUA

Migrazio-mugimenduei eta atzerritarren lanari buruzko arau-hausteak

1. ATALA

Migrazio-mugimenduei buruzko arau-hausteak

33. artikulua. Kontzeptua

Lege honen 2.4. artikuluan aipatutako subjektuen egiteak nahiz ez-egiteak laneko migrazio-mugimenduei buruzko arau-hausteak izango dira, lege hone-tan tipifikatuta eta zigortuta baldin badaude.

34. artikulua. Arau-hauste arinak

Kanpora joateko lan-eskaintzaren baldintzak aldatzea arau-hauste arina izango da, langileari kalte larriak eragiten ez badio.

35. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak dira:

1. Kanpora joateko lan-eskaintzaren baldintzak aldatzea, langileari kalte larria sorrarazten badio.

2. Kanpora joateko lan-kontratu baten funtsezko klausulak ezkutatu, fal-tsutu edo zuzentzea.

3. Langilea harrerako lurraldera beharrezko dokumentaziorik gabe joatea edo enpresak dokumentazio hori justifikaziorik gabe atxikitzea.

4. Itsaslari espainiarrak enpresa ontzi-jabe atzerritarren kontura kontrata-tzea, kontratazioa egin duten pertsona zein entitateek lan-agintaritzak horretar-ako emandako baimenik ez badute.

36. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak:

1. Edozein motatako errekrutatze-agentziak ezartzea.

2. Kanpora doazen langileen kontratazioan itxurak egitea edo engaina-tzea.

3. El abandono de trabajadores desplazados por parte del empresario contratante o de sus representantes autorizados.

4. El cobro a los trabajadores de comisión o precio por su contratación.

5. La obtención fraudulenta de ayudas a los movimientos migratorios, ya sean individuales o de reagrupación familiar, o la no aplicación o aplicación indebida de dichas ayudas.

SECCIÓN 2.^a

Infracciones en materia de permisos de trabajo de extranjeros

Artículo 37. Infracciones

Serán consideradas conductas constitutivas de infracción muy grave las de:

1. Los empresarios que utilicen trabajadores extranjeros sin haber obtenido con carácter previo el preceptivo permiso de trabajo, o su renovación, incurriendo en una infracción por cada uno de los trabajadores extranjeros que hayan ocupado.

2. Los extranjeros que ejerzan en España cualquier actividad lucrativa, laboral o profesional, por cuenta propia, sin haber obtenido el preceptivo permiso de trabajo, o no haberlo renovado.

3. Las de las personas físicas o jurídicas que promuevan, medien o amparen el trabajo de los extranjeros en España sin el preceptivo permiso de trabajo.

CAPÍTULO V

Infracciones en materia de sociedades cooperativas

Artículo 38. Infracciones en materia de cooperativas

Se sujetan a las prescripciones de este artículo, las infracciones de las sociedades cooperativas, cuando la legislación autonómica se remita al respecto a la legislación del Estado, cuando no se haya producido la referida legislación autonómica o cuando aquéllas desarrollen su actividad cooperativizada en el territorio de varias Comunidades Autónomas, de conformidad con lo establecido en la Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas.

3. Enpresaburu kontratatzaileak edo haren ordezkari baimendunek atzerri joandako langileak abandonatzea.

4. Langileei komisioa edo prezioa kobratzea beren kontratazioarengatik.

5. Migrazio-mugimenduetarako laguntzak iruzurrez lortzea, bai banakoak bai familia elkartzekoak, edo laguntza horiek ez aplikatzea edo behar ez bezala aplikatzea.

2. ATALA

Atzerritarren lan-baimenei buruzko arau-haustek

37. artikulua. Arau-haustek

Honako hauen jokabideak arau-hauste oso larriak izango dira:

1. Enpresaburuenak, langile atzerritarrak erabiltzen badituzte nahitaezko lan-baimena edo haren berritzea aurretik lortu gabe, lana eman dioten langile atzerritar bakoitzeko arau-hauste bana egin dutela ulerturik.

2. Atzerritarrenak, Espainian lan- edo lanbide-izaerako edozein jarduera etenkontsutan beren kontura aritzen badira, nahitaezko lan-baimena lortu gabe, edo hura berritu gabe.

3. Pertsona fisiko zein juridikoenak, atzerritarrek Espainian lan egitea sustatu, hartan bitartekaritza egin edo hura babesten badute, nahitaezko lan-baimenik gabe.

V. KAPITULUA

Kooperatiba-sozietateen alorreko arau-haustek

38. artikulua. Kooperatiben alorreko arau-haustek

Kooperatiba-sozietateen arau-haustek artikulua honetako aginduei lotuko zaizkie autonomia-erkidegoen legeriak Estatuaren legeriari bidaltzen duenean, autonomia-erkidegoak gai horri buruzko legeriarik ez duenean, edo sozietate kooperatiboek beren kooperatiba-jarduera autonomia-erkidego baten baino gehiagoren lurraldean garatzen dutenean, uztailaren 16ko 27/1999 Kooperatiba Legeak ezarritakoarekin bat.

1. Son infracciones leves: El incumplimiento de las obligaciones o la vulneración de las prohibiciones impuestas por la Ley de Cooperativas, que no supongan un conflicto entre partes, no interrumpan la actividad social y no puedan ser calificadas de graves o muy graves.

2. Son infracciones graves:

a) No convocar la Asamblea General ordinaria en tiempo y forma.

b) Incumplir la obligación de inscribir los actos que han de acceder obligatoriamente al Registro.

c) No efectuar las dotaciones, en los términos legalmente establecidos, a los fondos obligatorios o destinarlos a finalidades distintas a las previstas.

d) La falta de auditoría de cuentas, cuando ésta resulte obligatoria, legal o estatutariamente.

e) Incumplir, en su caso, la obligación de depositar las cuentas anuales.

f) La transgresión generalizada de los derechos de los socios.

3. Son infracciones muy graves:

a) La paralización de la actividad cooperativizada, o la inactividad de los órganos sociales durante dos años.

b) La transgresión de las disposiciones imperativas o prohibitivas de la Ley de Cooperativas, cuando se compruebe connivencia para lucrarse o para obtener ficticiamente subvenciones o bonificaciones fiscales.

CAPÍTULO VI

Responsabilidades y sanciones

SECCIÓN 1.^a

Normas generales sobre sanciones a los empresarios, y en general, a otros sujetos que no tengan la condición de trabajadores o asimilados

Artículo 39. Criterios de graduación de las sanciones

1. Las sanciones por las infracciones tipificadas en los artículos anteriores podrán imponerse en los grados de mínimo, medio y máximo, atendiendo a los criterios establecidos en los apartados siguientes.

1. Arau-hauste arinak dira: Kooperatiba Legeak ezarritako betebeharrak ez betetzea edo haren debekuak urratzea, bi alderen arteko gatazkarik eragiten ez bada, sozietatearen jarduera eteten ez bada eta larri edo oso larri kalifikazioa eman ezin zaienean.

2. Arau-hauste larriak dira:

a) Ohiko batzar nagusirako deia garaiz eta forma egokian ez egitea.

b) Erregistrora nahitaez iritsi beharreko egintzak inskribatzeko betebeharra ez betetzea.

c) Nahitaezko funtsei egin beharreko hornidurak legez ezarritako moduan ez egitea edo aurreikusitako helburuetara zuzendu beharrean beste batzuetara egitea.

d) Kontuen auditoria ez egitea, legez edo estatutuz nahitaezkoa denean.

e) Urteko kontuak gordailatzeko betebeharra ez betetzea, hala badagokio.

f) Bazkideen eskubideak orokorki urratzea.

3. Arau-hauste oso larriak dira:

a) Kooperatiba-jarduera geldiaraztea, edo sozietatearen organoek ez jardutea bi urtean.

b) Kooperatiba Legearen aginduzko edo debekuzko xedapenak urratzea, irabazteko edo diru-laguntzak edo zerga-onurak faltsuki lortzeko elkar hartu dutela egiaztatzen denean.

VI. KAPITULUA

Erantzukizunak eta zehapenak

1. ATALA

Enpresaburuentzako eta, oro har, langileak edo berdinetsitakoak ez diren beste subjektuentzako zehapenei buruzko arau orokorrak

39. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideak

1. Aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteengatiko zehapenak guxtieneko, erdiko eta gehieneko mailetan ezarri ahal izango dira, hurrengo puntuetan ezarritako irizpideei jarraituz.

2. Calificadas las infracciones, en la forma dispuesta por esta Ley, las sanciones se graduarán en atención a la negligencia e intencionalidad del sujeto infractor, fraude o connivencia, incumplimiento de las advertencias previas y requerimientos de la Inspección, cifra de negocios de la empresa, número de trabajadores o de beneficiarios afectados en su caso, perjuicio causado y cantidad defraudada, como circunstancias que puedan agravar o atenuar la graduación a aplicar a la infracción cometida.

3. En las sanciones por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales, a efectos de su graduación, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) La peligrosidad de las actividades desarrolladas en la empresa o centro de trabajo.

b) El carácter permanente o transitorio de los riesgos inherentes a dichas actividades.

c) La gravedad de los daños producidos o que hubieran podido producirse por la ausencia o deficiencia de las medidas preventivas necesarias.

d) El número de trabajadores afectados.

e) Las medidas de protección individual o colectiva adoptadas por el empresario y las instrucciones impartidas por éste en orden a la prevención de los riesgos.

f) El incumplimiento de las advertencias o requerimientos previos a que se refiere el artículo 43 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

g) La inobservancia de las propuestas realizadas por los servicios de prevención, los delegados de prevención o el comité de seguridad y salud de la empresa para la corrección de las deficiencias legales existentes.

h) La conducta general seguida por el empresario en orden a la estricta observancia de las normas en materia de prevención de riesgos laborales.

4. Las infracciones en materia de sociedades cooperativas se graduarán, a efectos de su correspondiente sanción, atendiendo al número de socios afectados, repercusión social, malicia o falsedad y capacidad económica de la cooperativa.

5. Los criterios de graduación recogidos en los números anteriores no podrán utilizarse para agravar o atenuar la infracción cuando estén contenidos en

2. Arau-haustek lege honetan ezarritako moduan kalifikatu ondoren, zehapenak honako inguruabar hauek kontuan hartuz mailakatuko dira: subjektu arau-hauslearen arduragabekeria eta nahitakotasuna, iruzurra edo elkar hartzea, Ikuskatzaitzak aurrez egindako ohartarazpenak eta errekerimenduak ez betetzea, enpresaren negozio kopurua, ukitutako langile edo onuradun kopurua hala badagokio, eragindako kaltea eta iruzurraren zenbatekoa. Inguruabar horiek egin den arau-hausteari aplikatu beharreko mailaketa astundu edo arindu ahal izango dute.

3. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko arau-hausteengatik zehapenetan honako irizpideak hartuko dira kontuan, mailaketa egiteko:

a) Enpresan edo lantokian jarretako jardueren arriskugarritasuna.

b) Jarduera horiei berez dagozkien arriskuen izaera iraunkorra edo iragan-korra.

c) Beharrezko prebentzio-neurririk ez zelako edo eskasak zirelako gertatu diren edo gerta zitezkeen kalteen larritasuna.

d) Ukitutako langile kopurua.

e) Enpresaburuak banakako zein taldeko babeserako hartutako neurriak eta hark arriskuen prebentziorako emandako jarraibideak.

f) Lan Arriskuen Prebentzioaren 31/1995 Legeak, azaroaren 8koak, 43. artikuluan aipatutako aurretiazko ohartarazpen edo errekerimenduak ez betetzea.

g) Prebentzio-zerbitzuek, prebentzioko delegatuek edo enpresaren segurtasun- eta osasun-batzordeak agertzen diren legezko hutsuneak zuzentzeko egiten dituzten proposamenak ez betetzea.

h) Lan-arriskuen prebentzioaren alorrean enpresaburuak arauak zorrotz betetzeko erakutsi duen jokabide orokorra.

4. Kooperatiba-sozietateen alorreko arau-haustek honako puntu hauek kontuan hartuz mailakatuko dira, dagokion zehapena ezartzeko: ukitutako bazkide-zenbakia, eragin soziala, malezia edo faltsukeria eta kooperatibaren ahalmen ekonomikoa.

5. Aurreko zenbakietan jasotako mailaketa-irizpideak ezin erabiliko dira arau-haustea astundu edo arintzeko, baldin eta arau-haustea eragin duen jokae-

la descripción de la conducta infractora o formen parte del propio ilícito administrativo.

6. El acta de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social que inicie el expediente sancionador y la resolución administrativa que recaiga, deberán explicitar los criterios de graduación de la sanción tenidos en cuenta, de entre los señalados en los anteriores apartados de este artículo. Cuando no se considere relevante a estos efectos ninguna de las circunstancias enumeradas en dichos apartados, la sanción se impondrá en el grado mínimo en su tramo inferior.

7. Se sancionará en el máximo de la calificación que corresponda toda infracción que consista en la persistencia continuada de su comisión.

Artículo 40. Cuantía de las sanciones

1. Las infracciones en materia de relaciones laborales y empleo, en materia de Seguridad Social, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 siguiente, en materia de movimientos migratorios y trabajo de extranjeros, así como las infracciones por obstrucción se sancionarán:

a) Las leves, en su grado mínimo, con multas de 60 a 125 euros; en su grado medio, de 126 a 310 euros; y en su grado máximo, de 311 a 625 euros.

b) Las graves con multa, en su grado mínimo, de 626 a 1.250 euros, en su grado medio de 1.251 a 3.125 euros; y en su grado máximo de 3.126 a 6.250 euros.

c) Las muy graves con multa, en su grado mínimo, de 6.251 a 25.000 euros; en su grado medio de 25.001 a 100.005 euros; y en su grado máximo de 100.006 euros a 187.515 euros.

d) Las infracciones señaladas en los artículos 22.3 y 23.1.b) se sancionarán:

Primero. La infracción grave del artículo 22.3 se sancionará con la multa siguiente: en su grado mínimo, con multa del 50 al 65 por 100 del importe de las cuotas de Seguridad Social y demás conceptos de recaudación conjunta no ingresados, incluyendo recargos, intereses y costas; en su grado medio, con multa del 65,01 al 80 por 100; y en su grado máximo, con multa del 80,01 al 100 por 100.

raren deskribapenean jasotzen badira edo ez-zilegi administratiboaren beraren parte badira.

6. Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak zehapen-espeditentea abiaraziz egindako aktak eta kasuari egokitzen zaion administrazio-ebazpenak zehapena mailakatzeko artikulua honen aurreko zenbakietan esandako irizpideetatik zein hartu diren kontuan adierazi beharko dute esplizituki. Zenbaki horietan aipatutako inguruabarretik bat ere ez bada garrantzitsutzat jotzen efektu hauetarako, zehapena gutxieneko mailan ezarriko da haren beheko tartean.

7. Edozein arau-hauste dagokion kalifikazioaren gehienekoarekin zigortuko da, hura egiteari iraunkortasun jarraituaz eusten bazaio.

40. artikulua. Zehapenen zenbatekoa

1. Lan-harremani eta enpleguari buruzko arau-haustek, Gizarte Segurantzari buruzkoak, hurrengo 3. zenbakian xedatutakoa eragotzi gabe, migrazio-mugimenduei eta atzeritarren lanari buruzkoak, bai eta oztopatzeagatiko arau-haustek ere, honela zigortuko dira:

a) Arinak, gutxieneko mailan, 60tik 125 eurora bitarteko isunen bidez; erdiko mailan, 126tik 310 eurora bitarte; eta, gehieneko mailan, 311tik 625 eurora bitarte.

b) Larriak, gutxieneko mailan, 626tik 1.250 eurora bitarteko isunen bidez; erdiko mailan, 1.251tik 3.125 eurora bitartekoen bidez; eta gehieneko mailan, 3.126tik 6.250 eurora bitartekoen bidez.

c) Oso larriak, gutxieneko mailan, 6.251tik 25.000 eurora bitarteko isunen bidez; erdiko mailan, 25.001tik 100.005 eurora bitartekoen bidez; eta gehieneko mailan, 100.006tik 187.515 eurora bitartekoen bidez.

d) 22.3 eta 23.1.b) artikuluetan adierazitako arau-haustek honela zigortuko dira:

Lehenengoa. 22.3 artikuluko arau-hauste larria honako isun honen bidez zigortuko da: gutxieneko mailan, 100eko 50etik 65era bitarteko isunaren bidez, erreferentzia Gizarte Segurantzaren kuoten zenbatekoa eta baterako diru-billetaren gainerako kontzeptu ordaindu gabekoen zenbatekoa izanik, errekarguak, interesak eta kostuak barne; erdiko mailan, 100eko 65,01etik 80ra bitarteko isunaren bidez; eta gehieneko mailan, 100eko 80,01etik 100era bitarteko isunaren bidez.

Segundo. La infracción muy grave del artículo 23.1.b) se sancionará con la multa siguiente: en su grado mínimo, con multa del 100,01 al 115 por 100 del importe de las cuotas de Seguridad Social y demás conceptos de recaudación conjunta no ingresados, incluyendo recargos, intereses y costas; en su grado medio, con multa del 115,01 al 130 por 100; y en su grado máximo, con multa del 130,01 al 150 por 100.

e) Las infracciones señaladas en los artículos 22.2 y 23.1.a) se sancionarán:

1.º La infracción grave del artículo 22.2 se sancionará con la multa siguiente: en su grado mínimo, de 3.126 a 6.250 euros; en su grado medio, de 6.251 a 8.000 euros y, en su grado máximo, de 8.001 a 10.000 euros.

